

# 2015eko AZAROAREN 30eko KANBOKO HERRIKO ETXEKO BILKURA

Herriko Kontseilua, 2015eko azaroaren 30ean, astelehenarekin, 20:00etan, Vincent BRU Jaunaren lehendakaritzapean bildu da herriko etxean.

Bertan ziren: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux Anderea, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna, Eliane Aizpuru Anderea, Henri Saint-Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino Jauna, Christiane Despéries Anderea, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Corinne Othatcegy Anderea, Peio Etchelecu Jauna, Maryannick Hirigoyen Anderea, Roger Barbier Jauna, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Hor ez zirenak edo jakinarazi zutenak: Argitxu Hirigoyen Anderea, Jean-Noël Magis Jauna, Carmen Gonzalez Anderea, Camille Jenvrin Jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordea: Argitxu Hirigoyen Andereak Vincent Goytino Jaunari, Jean-Noël Magis Jaunak Christian Devèze Jaunari, Carmen Gonzalez Anderea Henri Saint Jean Jaunari, Camille Jenvrin Jaunak Bernadette Jougleux Andereari.

## **1 – Saioko idazkariaren izendatzea.**

**Aho batez** bertan ziren kideek, Corinne Othatcegy Anderea izendatu dute saioko idazkari.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei, Parisko atentatuetako biktimen omenez, isiltasun minutu bat egitea galdegiten die.

## **2 – Azken saioaren bilkura agiriaren onartzea.**

Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei galdegiten die oharrak badituztenez 2015eko azaroaren 30ean gertatu den saioaren bilkura agiriari buruz.

Aïçaguerre Andereak adierazten du joan den azaroaren 30eko Herriko kontseiluko azken saioaren bilkura agiria ez onartzea erabaki duela, eta ondoko adierazpena egiten: « *Gure taldeak azpimarratu nahi du azken herriko kontseiluko 9. puntuak arazo bat pausatzen duela. Izan ere, hiru diru laguntza gehigarri esleitzea aipatzen duen 9. agiri eratxikian, ez zen azalpen notarik agertzen Garaiko Kanboko besta komiteari eman 5 000 €-ko diru laguntzari buruz xehetasunik emateko. Alta azalpen notak nahitaezkoak dira 3 500 biztanle baino gehiagoko herrietan. Nota horretan bakarrik adierazia da « 5 000 € Garaiko Kanboko besta komiteari, arazorik pausatzen ez zuen urteko diru laguntza natural bat zela uste araziz. Alta saioan, Auzapezak besten axuantak egin puntu horren aukezpenak arazo biziki larri bat agerian uzten zuen, denen harridurarako, besta komitearen baitan, garai batez, lan egin zuten pertsona beneboloen kudeaketa edota zuzentasuna zalantzan ezartzen zuen, Auzapeza bi kanboar gazteren izenak ematera helduz, eta herriko etxeak ez dituelarik behin ere gaur egun leporatzen zaizkien egoeraz eta egintzez abisatu. Diru laguntza horren esleitzearen arrazoiak zehaztu beharko zuen azalpen notarik ezean (Merkatari Batasunari*

*dagokionez egina izan den gisara), ezin ziren bildu Kontseiluko saioa aitzin, gazteen aurkako leporatze larriei erantzuteko elementuak bildu. Ulertuko duzue baldintza horietan, ezin dugula 2015eko azaroaren 9ko Herriko kontseiluko bilduma onartu ».*

Auzapez Jaunak oroitarazten du ohiz kanpoko diru laguntza bat zela, urteko diru laguntza hastapeneko aurrekontuaren bozketan onartua delako. Adierazten du oposizioko taldearen oharra kontutan hartzen duela, Hiriart-Urruty Andereak, Bacardatz Jaunak, Aiçaguerre Andereak eta Michelena Jaunak, joan den azaroaren 9ko Herriko kontseiluko saioaren bilkura agiriaren aurka bozkatzan dute. Beste oharrik badenez galdegiten du.

Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du ez dela agertzen bilkura agiri horretan berak eskatu eta Auzapez Jaunak publikoki irakurri Suprefetaren gutuna.

Auzapez jaunak erantzuten du egia dela Suprefetaren gutuna irakurri duela, baina txostenak ez dira saioan gaindi errana edo irakurria den segida osoa. Gutun hori edonoiz kontsultatzen ahal zen eta fotokopia bat eskatzen ahal zen.

Azken saioaren bilkura agiria gehiengoak onartzen du.

### **3 – Lurralde erreforma: departamenduko herri arteko lankidetzaren eskemaren apailatzea.**

Auzapez jaunak oroitarazten du mintegi bat antolatua izan dela joan den azaroaren 21ean, larunbatarekin, eta Herriko kontseiluko kide guzietan irekia zitzaiela lurralde antolaketa berriaren egoera aztertzeko. Erreforma hau, 2015eko agorriaren 7ko NOTRe deitu Errepublikaren lurralde antolaketa berria dakarren legearen bitartez materializatu da. Honek prefetuei, hautetsiekin luzaz kontzertatu ondoren, departamenduko herri arteko lankidetzaren eskema bat prestatu eta obratzeko zeregina eskaintzen die. Eskema horren helburua lurralde elkartasunak sendotzea da herriak eta haien erakunde publikoak haien lurralde proiektuen obratzen laguntzeko eta haien zerbitzuen kudeaketa eta mutualizazio hobea lortzeko. Herrien bateratze mugimenduaren segitze batekin gauzatzen da, baina ere herri arteko sindikatu eta sindikatu anitzen kopuruaren murrizte esanguratsua batekin. Eskema proiektu hau, muga 5 000 biztanletik 15 000 biztanlera altxatua izan duen perimetro aldaketa eta fiskalitate propioko HELEP bateratze proposamenez osatzen da, bai eta herri arteko sindikatu edo sindikatu anitzako perimetro suntsitze eta aldaketa proposamenez ere.

Lurralde kolektibitateen kode orokorreko L 5210-1-1 artikulua arabera, gure departamenduko prefetak, HELEP Euskal Herria, Euskal Herriko hirigune elkargoa deituko daitekeen HELEP departamenduko herri arteko lankidetzaren eskema proiektu hau departamenduko herri arteko batzordeko kideei 2015eko irailaren 29an aurkeztu die, honek, Bearnoko HELEP-ak 19tik 7ra murrizten dituelarik eta Euskal Herrikoak 10etik 1era.

Mintegi horretan, historikoa, eskumen proposamenak, gobernantza arazoak eta Estatuko zerbitzuek aurkeztu bezala, fiskalitate elementu batzuk ikusiak izan dira.

Auzapez Jaunak oroitarazten du gaur egun erabakirik ekarriko ez duen kontsulta sinple bat denareb aldeko bozketa bat nahi duela.

2015eko urriaren 2an eskuratu 2015eko irailaren 29ko gutun baten bitartez, Suprefeta Jaunak kolektibitatei galdegiten die, lehen denbora batean, iritzi sinple bat adieraztea egitasmoari buruz, notifikazioa agertu ondoko bi hilabeteko epean, erran nahi baita 2015eko abenduaren 2ko.

Alabaina, Lurralde kolektibitateen kode orokorreko L 5210-1-1 artikulua arabera Prefetari dagokio, premetroen egokitasuna eta jadanik dauden elkargoen eskumenen banatzea eta haien aritzeari buruzko egoeraren azterketa baten aitzinean, 2016ko martxoaren 31 aitzin gelditua izan behar duen departamenduko herri arteko lankidetzaren eskema bat apailatzea.

Prozeduraren urratsak ondokoak dira:

1. urratsa: Estatuko zerbitzuek prestatu eskema egitasmoa Prefetak aurkezten dio CDCI/DHLB-ri (2015eko irailaren 29an).

2. urratsa: departamenduko HELEP-etako herriko kontseilu eta organo erabakitzaile guzietan helarazten zaie, iritzi eman dezaten (iritzi sinplea hein horretan). 2 hilabeteko epe batean iritzia agertzen dute (urria eta azaroa guti gorabehera). Epe horretan iritzirik ez bada ematen, aldekotzat hartua izanen da.

3. urratsa: SDCI/DHLE egitasmoa eta 2. urratsaren kariatara agertu iritziak DHLB-ko kideei helaraziko zaizkie eta honek 3 hilabeteko epea dauka (guti gorabehera 2015eko abendutik 2016ko otsailera) iritzi bat emateko DHLE egitasmoari buruz. Bere kideen 2/3 gehiengoak onartu aldaketa proposamenak DHLE egitasmoan sartuak dira LKKO-ko L. 5210-1-1 artikuluko letik III artera aurreikusi egin behar, helburu eta norabideekin bat egiten baldin badute.

Auzapez Jaunak zehazten du Prefetak adierazi duela herriek ezingo dutela gaur egungo egoeran gelditu. Euskal HELEP-a baztertuta balitz, herriak Kostako hiriguneei lotuak litzatekeela, eta hau ez daiteke gauza ona Kanboko herria eta orokorkiango Errobi Herri elkargoarentzat, EKAH-ak eta Hego Lapurdiko Hiriguneei osatzen duten elkargo urbanizatuago batean geldituko liratekeelako. Akitaniak frantses herrialde handiena osatzen du lurralde mailan eta egitasmo honek elkargo horretan pisu handiagoa ukaitea ahalbidetuko luke, Akitania eskualde handiko bigarren hirigunea ginatekeelako HELEP-a egiten balitz.

Beste aterabide batzuk bilatzen ahalko ziren, besteak beste, integratze osoa aitzin izan zitekeen bide federala. Baina NOTRe legeak ez du nahiko denborarik uzten gogoeta horretarako; Prefetak departamenduko herri arteko eskema absolutuki 2016ko abenduaren 31 aitzin gelditu behar du, 2017ko urtarrilaren 1ean baliagarria izan dadin.

Prefetak, hirigune elkargo baten forma eta hiri elkargo batena dukeen herri arteko lankidetzaren erakunde publiko baten sortzea aurkezten du beraz Euskal Herriarentzat.

Auzapez Jaunak galdegiten du pertsona batzuk hitza hartu nahi dutenez gai honi buruz.

Michelena Jaunak adierazten du « oroitua behar dela ba duela bi mende baino gehiago lurralde honetako biztanleek entitate administratibo baten inguruan bildu nahi dutela. Garaian departamendu bat galdegiten zuten, 1981 arte eramana izan den aldarrikapena da eta aldi oro Parisek guzietan ezetz erran dio. Elkar aditze bat izan da Hautetsien Kontseilua eta Garapen Kontseiluaren artean lurralde kolektibitate berezi bat proposatzeko, alderdi politiko guzietan adostasuna lortuz, front de gaucherena salbu. Parisek nahiago izan du ezetz erran, harenak diren arrazoi batzuegatik, baina aldiz, sorpresa gozoa da gu abertzaleontzat, HELEP hau proposatzea. Arrunt aldekoak gara, politiko eta administratibo arloetan aldaketak gertatzekotan geroan. Espero du ere HELEP izena aldatua izanen dela ».

Auzapez Jaunak erantzuten dio bere lehen oharri dagokionez, jadanik aipatua zuela mintegiaren kariatara eta ez duela orduan errana izan zen guzietan berriz hartu. Garat anaiek zuten, Asanblada Nazionalaren aitzinean Euskal Herri departamendu bat sortzea galdegin. Hau berriz hartua izan zen 19. mendearan lehen erdian 1830 – 1840 urteetan, gai honi buruz memoria bat erregeari helarazi zion Baionako Merkatal eta Industria Ganbararengandik, eta ondotik, Euskal Herriko kontratu berezi guzietan izan dira. Zehazten du HELEP ez dela izen bat baina legezko egitura bat, Herri arteko Lankidetzaren Erakunde Publikoa adierazteko. Ez da HELEP deituko baina, gauzatzen baldin bada, Euskal

Herriko Hirigune Elkargoa. Honen izaera juridikoa fiskalitate propioko herri arteko lankidetzaren erakunde publikoa da.

Devèze Jaunak adierazten du hitza hartu behar duela abstenitu gogo duen Jean-Noël Magisen izenean. Baina lehenago, bere iritzia adierazi nahi du. Erraiten du ez dela HELEP bakarraren aldekoa baina bai Baiona Prefeturaren alde. Presaka proposatua den eskemak kontzertazio eta eztabaida gehiago eramatea merezi luke, bai eta aukera guztiak aztertuak izan daitezkeen. Egitura bakar batean 158 herri biltzea honen lehendakaritza jadanik Kostari edo Baionari eskainia zaiolarik, barnealdeko hirientzat baserri guneko herriak aipatu gabe, jendea engainatzen da eta pentsatzean oreka izanen dela kostatzen eta barnealdearen artean. Hauteskunde batzuen kariatara aurkeztu diren senatari batzuk (kostako legebiltzar kideak) herriak eta bereziki uraren arloan laguntzea aurreikusia zuten haien programan. Ondotik behatu ahal izan du agiantza alferra zela. Ez da segur Kostako jendeak eta hiri haiek kudeatzen dituztenak Kostako aberastasunak partekatzeko prest direnik. Herri arteko lankidetzaren eskema egitasmo honi buruz Luhuson burutu bilkuran, eskumenak, zergak eta gobernantza hiru puntuak ez dira biziki garatuak izan. Prefeturako nahikeria da gehien bat, mintegian aurkeztua izan den mapa begiratzen baldin badugu, egitura administratibo bat atzematea esntseatu dira. Departamendu mailako egitura bat defenditzen duten hemen dauden pertsonak ez dute engainatu behar, HELEP-ak ez du deus ikustekorik Departamenduekin. Oroitarazten du biztanleriari iritzia eskatua izan zitzaiola Europarako bozkatzeko. Garaian jadanik egitura honen aurka bozkatu zuen, nahiz eta onartzen duen moneta bakarrak aitzinamendu anitz ekarri duela. Baina Europa zabaldu da eta zaila da eragile guztien arteko politika koherente bat apailatzea. Elkartasuna behar da bi hirigune elkargo eta barnealdearen artean, baina horren egiteko presak ez du egoera ongi neurtzeko aukerarik uzten. Oharrarazten du egitura berri honen hartzeko lokalik ez dagoela eta espero du antolaketa berri honi lotuak zaizkion fresek ez dituztela eskualdeetan behatu xahutze hain garrantzitsuak ondorioztatuko. Haren aburuz, Prefetaren eskaintza biziki politikoa da, mapa begiratu, Euskal Herria HELEP-a egitura bakar batez osatua da.

Ondorioz, Devèze Jaunak adierazten du ez dela euskal herria egitura baten aurkakoa, baina pentsatzen du engaino bat dela proposaturik. Beldur da kontu guztien kitzatze bat dela. Ez da haren iritziz egitura ona.

Barbier Jauna ere egitura honen aurka agertzen da nahiz eta nortasuna baino haratago, bada galderak pausatzeko arrazoirik gobernantza, fiskalitateari dagokienez. Seinalatzen du EKAH-k bi kontu-ikuskatze proposatu ditu. Haren « eza » kontu-ikuskatze horren emaitzen arabera da eta adierazten du haren bozka alda daitekeela ondorioz. Aholku iritzi bat denez eskatua hein horretan eta engaiamendurik ez denez, nahiago du ezetz erran.

Devèze Jaunak Magis Jaunaren ahalordearekin batera eman dion gutuna irakurtzen du.

Magis Jauna abstenitzen da bozkaldi honetako, gehien bat ondoko bi arrazoiengatik:

Lehenik, finantza arloan, HELEP honen sortzeak guti edo aski zergen emendatze bat ekar dezake eta, denbora berdinean, neholako murrizketarik herriko zergei dagokienez. Bestalde, tokiko ordezkariaren mailan, herriari esleiturik geldituko zaizkien eskumenei buruzko galderak egin genitzake, besteak beste herriarena gelditu behar duen antolaketa eskumena (HTP). Izan ere, 158 herrirentzako HTP bat utopia da.

Magis Jauna, egitasmoa azaltzeko elementu eskasa ikusirik, bere erabakia datorren maiatzera gibelatzen du.

Auzapez Jauna berriz dator Devèze Jaunaren argudioetara eta adierazten du ez duela azken honen ikuspuntua partekatzen. Oroitarazten du pausatuta galderak, bereziki zerga arloan, zernahi izanik pausatuko direla, eztabaida honen aterabidea nola nahikoa izanik ere, Prefeta ez baita gaur egungo herri

arteko maparekin geldituko, eta Errobi Herri elkargoa multzo askoz handiagoan eta askoz urbanoagoan sartuko da. Ez ote dute Kanbok eta inguruek interesik hiriguneari aurre egiteko parada handiagoa eskainiko dien multzo zabalago batean izatean, Errobi elkargo osoa edo zati bat jan lezakeen hirigune bateko azken «peoia» izatea baino. Ez bada Euskal herria Hirigune elkargoa, gure lurraldea Kostari konparatuz postura apalagoan izanen den hirigune elkargo bat izanen da. Hiriguneak uraren arloan egin zituen agintzei dagokionez, oroitazten du herriari, garaiari, Distrituak laguntza bat eskaini ziola. Araztegia burutua izan zelarik, herriak laguntza bat lortu du Hirigunetik ere. Elkarrekin lan egitearen beharra azpimarratzen du. Biziki urbanizatua den hirigune baten baitan herri guti daudelarik, hauek gehiago hauskortzen dira. Diru eta zerga galderak pausa daitezke elkargo bateratze batean bezain bat Prefetuak nahiko lukeen moldean, HELEP orokor batean ere.

Auzapez Jaunak adierazgarria eta ez erabakizkoa den bozketa honen garrantzia oroitazten du. 2016ko maiatzaren bukaeran, herritarren erdia ordezkatzeko duen herrien erdiak ez badu onartzen, Prefetuak departamenduko batzordeari zuzenduko zaio beste egitasmo bat proposatzeko, eta gainetik pasatzen ahalko da eta haren eskema inposatu 2017ko urtarrilaren 1a arte, herrien arteko eskemak baliagarri izan beharko baitu Frantziako departamendu guzietan.

Devèze Jaunarentzat, fiskalitateari dagokionez, barnealdeko herriek ez dituzte diru sartze berdinak. Baserri guneetako batez besteko zergak %2koak dira eta Kanbon %4koa da, desberdintasun garrantzitsua. Horrelako egitura baten barnean, zerga molde bakarra izanen da. Elkartasuna egon beharko da Kosta eta barnealdea eta Euskal Herri osoaren artean, progresiboki eraiki behar da. Zerga tasa bakar bat izanen da, aldaketa 2017ko urtarrilaren 1ean egingen da eta hamar urtetan lisatuko da. Zergen gaiari dagokionez, ez da hain sinple, eta igurikatzen du Kanbo eta beste herrien mailan izanen diren ondorioak ikustea.

Uraren arloan, Devèze Jaunak adierazten du Kostak elkartasuna argiki erakusten diela barnealdeko herriari Errobiko Arro Isurkiko Sindikatu bat baita, garaiari Bernard Auroyren lehendakartzapean, herriari diru laguntzak lortzea ahalbidetu diona. Herriak beste laguntza batzuk ere lortu ditu; eta operazio hau biziki ontsa diruztatua izan da. Kostak diruz lagundu badu, Baionara heltzen zen ura kalitate kaskarrekoa zelako zen. Baionak interes handia zeukan ibaian gorako uren kalitatea tratatua izan dadin.

Auzapez Jaunak berriz seinalatzen du 2017ko urtarrilaren 1ean, herri arteko paisaia aldatuko dela eta auzapez guziak eta Errobi Herri elkargoko lehendakaria konbentzituak direla herriek ez dutela biziraunen oraingo egoeran NOTRe legearen erreforma horrekin. Deus ez da lehen bezala geldituko. Zergei dagokionez, Devèze Jaunak adierazi beldurrak errealak dira 10 urtez eraman beharreko lisatzea bezala. 2017ko urtarrilaren 1ean, ez dira zerga berdinak izanen, egitura berdina baten baitako uraren prezioa ez da berdina.

Batzuek saio horretan adierazi dituzten arregura eta galdekatze hauek kontutan hartzeko, Auzapez Jaunak ondoko proposamena egiten du: aldeko iritzia eskumen, gobernantza molde eta diru eta zerga aspektuen argitze bat eginez gero.

Ateleria batzuk antolatuta dira orain berean Hazparneko Herri arteko elkargoaren baitan eskumen hau ala hura hartzeak eraginen lituzkeen arazoak argitu, begiratzeko, eta azken erabakia hartzeko hobeki informatuak izateko. Gobernantza moldeei buruz, elkarrizketak abiatuak dira besteak beste batzorde iraunkorra, honen osaketa, hiri eta baserriko herrien zatiaz. Diru eta zergen arloan, lan bat burutzen dute Estatuko zerbitzuek. Barbier Jaunak adierazi duen bezala, EKAH-k manatu bi inkesta publiko egingen dira eta erabakitzaile guziek aztertuko dituzte.

Lan egin beharko da oraindik herriko kontseilarien bigarren deliberazioa burutu aitzin.

Auzapez Jaunak bozkarazten du haren aldeko iritzi proposamena, eskumen, gobernantza molde, diru eta batez ere tokiko zergen aspektuen hobetze eta argitze bat eginez gero.

Bacardatz Jaunak oharrarazten du Prefetak iritzi bat galdegiten duela eta ez erresalbuekilako iritzi bat. Adierazten du ez duela ulertzen: «edo alde gira edo ez gira hala. Ez dugu erresalbuekilako aldeko iritzi bat ematen».

Auzapez Jaunak ezetz erantzuten dio. Printzipioari dagokionez, herria ados da baina argi du horrek arazoak pausatzen dituela, eta legezko ondorioz ez denez, arrunt posible da erresalbupenekilako iritzi bat ematea. Horrek erran nahi du indar batzuk egin behar direla oraindik, bai eta gogoeta bat eramateko, hautetsien ateleria batzuk burutzen dira aste guziz. Proposamena ez da arrunt bururatua, lan oso bat egina da Hautetsien kontseiluaren koadroan, lankidetzeta batekin Prefeturarekin.

Bacardatz Jaunak galdegiten du herria kontatua izanen denez aldeko iritzia eman dutenen artean.

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio bozketa aldekoa baldin bada.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Departamenduko herri arteko laguntza eskema egitasmoa onartua da.

Kontra bozkatu dute: Devèze Jaunak, Barbier Jaunak eta Jenvrin Jaunak.

Abstenitu dira: Magis, Irastorza Jaunak, Lespade, Jougleux, Despériés eta Larronde Andereak.

Dor Jaunak adierazten du Prefetak jakinarazi zuela egitasmoa bozkaturia izanen zelarik, bai edo ez bozkatu behar zela, ez zela abstentziorik izanen. Horri buruzko argitasunak galdegiten ditu.

Auzapez Jaunak adierazten du Prefetak ezetz dioten herriak baizik ez dituela kontatzen. Iritzirik agertzen ez duten herriak aldekoak bezala hartuak dira.

#### **4 – Euskara: aitzinamendu kontratua.**

Auzapez Jaunak hitza euskaraz arduratzen den Etchelecu Jaunari pasatzen dio, azaroaren 27an, larunbatarekin burutu den mintegian ere aipatua izan den 4. puntua aurkez dezan.

Etchelecu Jaunak adierazten du Euskararen Erakunde Publiko (EEP) ordezkatzan duen Jean-Michel Barbierrek eta Errobi Herri elkargoaren baitan euskararen garapenaz arduratzen den Ioné Josiéek burutu diagnostikoa mintegiaren karietara aurkeztua izan dela. Herriko zerbitzu desberdinen bai eta LSHZ eta Arnagako gain soako oso bat burutu dute bi teknikari hauek, hautetsi batzuk batzuetan lagundurik, publikoari banatu dokumentuak zerrendatzeko, itzuli beharko liratekeenak zehazteko eta zerbitzu guziekin biltzeko langile desberdinek euskararen jakintzan aitzinatze erakutsi gogoia ezagutzeko. Azken helburua, euskararen erabilera hobetzea da lehentasunez publikoarekin loturan diren herriko zerbitzu desberdinen baitan. Xedea, herriaren autonomia azkartzea da zerbitzu desberdin horien erabilpena eta ekoizpena mailan euskaraz ari diren erabiltzaileekin. Diagnostiko horren ondorioz, euskara mailan aitzinamenduak burutzeko asmoa adierazi duten langile guziek ebaluaketa bat burutu dute AEK-ren eskutik eta lehentasun ardatz batzuk zehaztuak izan dira aldi berean herriaren antolaketa eta ibilmoldeari begira zerbitzuak ahal bezain guti tratatuak izan daitezzen, eta postu desberdin edo zeregin desberdinen lehentasunei begira. Formakuntza plan bat zehaztua izan da Auzapez Jaunarekin eta zerbitzuak zuzendariarekin loturan, zerbitzuek traba gehiegirik jasan ez dezaten, baina langile guziek euskara

menpera dezaten, sei urtez iraunen duen plan batekin, euskarazko zerbitzua erabiltzaileengan hobetzeko gisan.

Aitzinamendu kontratuak kostu bat ukanen du kolektibitatearentzat eta honen %33 herriaren gain geldituko da, %25 EEP-ren gain, eta gaineratikoa, erran nahi baita %42 Errobi Herri elkargoak har dezake. Plan ambiziotsua da herriarentzat.

Etchelecu Jaunak honen diru mailako eragina 1 urtean agerrarazten du euskaraz ikaspen osoa beharrezkoa duen ATSEM bati murgiltze osoko irakaskuntza sei hilabetez eskainia izanen baitzaio, honek xahutze handia osatzen duelarik, langilea formatu eta ordezkatu behar delako. Baina langile hau sei urtez astean hiru orenez formatu behar balitz, karioagoa gertatuko litzateke.

Devèze Jaunak herriak egin indarra adierazgarria dela forgatzen duen kontratuko 5 puntuko elementuak oroitaraztea galdegiten du.

Etchelecu Jaunak herria eta LSHZ-ren engaiamenduak irakurtzen ditu.

Auzapez Jaunak zehazten du lehen urteak herria eta LSHZ-rentzat nahasirik, parte hartzea 14 000 ingurukoa dela. Beste urteetarako, 12 000 ingurukoa da, EEP-ren laguntza kontutan harturik.

Etchelecu Jaunak seinalatzen du horrek kostu orokorreko %33 osatzen duela.

Michelena Jaunak, lehenik euskaraz eta ondotik frantsesez, adierazten du bere taldeak indar handiz sostengatzen duela delibero hori. Euskara herriko zerbitzu desberdinetan praktikatua izateko aitzinamendu kontratua da, urrats berri batekin langile boluntarioen formakuntzan publikoarekiko komunikazioa euskaraz edo frantsesez egin ahal izan dadin, bakoitzaren hautuaren arabera. EEP eta Errobi Herri elkargoarekin izenpetua izanen den kontratua da eta engaiamenduaren balioa du. Aitzinamendu bat da jadanik dagoenari konparatuz eta horrek zilegitasun bat, ezagupen bat ematen dio Parisek betidanik ukatu duen euskarari. Azpimarratu nahi du Peio Etchelecuk burutu lana, egitasmu hau euskara batzordearen aho bateko sostenguearekin eraman baitu. Egiteko asko geldituko da euskara denetan berriz entzuna izan dadin Kanboko eremu publikoan...

Barbier Jaunarentzat, Kanbo frantses herria da eta frantsesa Errepublikako hizkuntza ofiziala da. Herriko etxeak ez du euskararen ikasketa bere gain hartzerik, eta ez da kontraturik izenpetzerik. Euskararen ikasketa erabat pribatua da eta maila horretan gelditu behar du.

Auzapez Jaunak Barbier Jaunari oroitarazten dio EEP-ko lehendakari ordea dela, Jean-Jacques Lasserre departamenduko lehendakariaren ordezkaria instituzio horretan. Estatuak, erran nahi baita DRAC, Hezkunde Nazionala eta Prefeta, lekua du euskararen aldeko politika publikoak zehazteko zeregina duen Erakunde publiko horretan. Auzapez Jaunak zehaztu nahi du herria ongi sartzan dela errepublikako, frantses legezketasunean. Estatuak onartu eta lehenetsi hizkuntza politika bat da zinez, eta Estatuak bertan parte hartzen du.

EEP-ko azken administrazio kontseiluan, aitzinamendu kontratu hau Prefetuaren presentzian aztertua izan da eta aldeko iritzia lortu du. Datorren abenduaren 4an, EEP-ko biltzar nagusia burutuko da eta bertan Departamenduko Prefetak, arrondizamenduko Suprefetak, Hezkunde Nazionalako ikuskariak eta Akademiako Errektoreak parte hartuko dute, eta kari horretara aitzinamendu kontratuak onartuak izanen dira. EEP Herri elkargoei eta erakunde pribatuei ere zuzentzen zaie (duela zombait urte Baionako Ospitalarekin eta duela guti Belharra klinika eta ondoren Ofizialeen Ganbareekin izenpetu hitzarmena).

Hiriart-Urruty Andereak hitza hartzen du erraiteko asaldatua dela Barbier Jaunak baliatu probokazio solasekin. Onartezina zaio halako hitzak ahoska ditzan. Ondokoa dio: « 2015ean gaude, asaldatzen nau ezin zaiola bururatu Kanbo Euskal Herrian dela, euskaraz mintzatu nahi duten euskal herritarrak ba daude hemen ». Hori tamalgarria atzematen du baina ez da harritia « barbier Jaunak islamari buruz erabili hitz zikinekin igorri duen maila ikusirik ». Ez da harritzen halako arrazoinamendua ukaiteaz.

Barbier Jaunak erantzuten dio ez dela euskararen aldekoa edo aurkakoa izatea. Harek diona « euskararen alde gune pribatuan izaten ahal gara baina ez eremu publikoan gaur egun ». Eremu publiko gaur egun, Auzapez Jaunak Gaurko Estatuari dagokionez erran duen gisara, azken hau zernahi egiteko prest da bozak lortzeko. Pentsatzen du ez dela gauza batzuk egitean on egiten diogula « gure nazioari ».

Lespade Anderak seinalatzen du gaurko Sud-Ouest egunkarian artikulua bat badela « camemberts » batzuekin eta ikusten dugu deus ez bada egiten euskararen alde, azken hau desgertuko dela.

Hiriart-Urruty Andereak Barbier Jaunari erraiten dio adierazi diola euskara gune pribatuan baizik ez zela erabilia izan behar, baina oharrarazten dio euskara eskola sistema publiko, pribatu eta ikastoletan irakatsia dela. Eskola publikoan murgiltze sistema bada. Frantsesa Errepublikako hizkuntza dela entzutea piska bat « has been » da.

Barbier Jaunak erantzuten dio hautu bat dela, eta errealitatea dela, frantsesa zinez Errepublikako hizkuntza da.

Auzapez Jaunak hitza hartzen du adierazteko Herriko kontseilua ez dela hizkuntza eztabaida bat eramateko bildua, eta Roger Barbieren aurka egin solasak deitoratzen ditu. Bakoitzak bere sentikortasun bat du, eta haren ikuspuntua adierazteko eskubidea. Erraiten du ez duela Roger Barbieren iritzia partekatzen, adeitasunez erantzun dio bera ere adeitasunez mintzatu den bezala, eta oroitarazten du egia dela, gure konstituzioaren arabera frantses hizkuntza Errepublikaren hizkuntza da. Auzia ez da printzipio hau zalantzan ezartzea. Konstituzioaren beste xedapen batek dio tokiko hizkuntzak Frantziako ondarearen aberastasun bat direla. Frantzia eta Estatuak batez ere, arrunt ados dira eskualdeetako hizkuntzen irakaskuntza eta erabilpena lehenesteko eta Estatuak hala egiten du oraingo kasuan EEP-ren bitartez.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aitzinamendu kontratua gehiengoak onartzen du.

Kontra bozkatu dute: Barbier eta Jenvrin Jaunek.

Abstenitu dira: Jogleux eta Larronde Andereak.

## **5 – « Hiri bihotza » operazioaren 3. zatia: merkatua enpresarekin.**

Auzapez jaunak bere kideei oroitarazten die, 2015eko azaroaren 9ko deliberazioaren bitartez, Herriko kontseiluak ondokoaz osatua den « Hiri bihotza » operazioaren 3. zatiko obren programa onartu duela:

- Zati fermu bat: Elizako plaza
- Baldintzazko bi zati:
  - . 1 baldintzazko zatia: Chantecler aparkalekua



. 2. baldintzazko zatia: apezetxeko plaza.

Obretarako aurreikusi diru zama 590 000 € ZK-koa da, obralaritza barne. Zati fermurako aurreikusi obren iraupena bost hilabetekoa da, erran nahi baita 2016ko urtarriletik maiatza bukaerara.

Kontsulta bat abian ezarria izan da 2015eko urriaren 26an. Bi enpresek erantzun dute. Gutunen irekitzea 2015eko azaroaren 16an gertatu da. Obralarien eskaintzen azterketa 2015eko azaroaren 23an aurkeztu du MAPA batzordean.

Auzapez Jaunak kontsultaren emaitzak emaiten ditu eta 566 407,10 € ZK-koa den SOBAMAT/ECRD enpresa multzoaren eskaintza, ekonomikoki inetresgarriena bezala agertzen da.

Bacardatz Jaunak merkatuaren zenbateko osoa ezagutu nahi du, jakin gabe iragarri zenbakiaren barne dena, zati fermua eta baldintzazko zatiak, sartzen direnez edo bakarrik zati fermua.

Auzapez Jaunak erantzuten dio MAPA batzordearen bilkuran erabakia izan zela osotasuna atxikitzea, orohar zati fermua eta baldintzazko zatiei dagozkien 566 407,10 € ZK. Zenbateko honi, komeni zaio obralaritza fresak gehitzea.

Bacardatz Jaunak galdegiten du, obralaritzarekin, merkatuaren zenbatekoak aurreikusi zama gaintzen duenez.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak erantzuten du ez duela obralaritzaren tasa zuzena, baina aurreikusi zama anitzez gaintua izanen da, obralaritzarekin, kostu osoa 605 000 € eta 610 000 € arteko izanen baita guti gorabehera.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aho batez, Herriko kontseiluak Auzapez jaunari, « Hiri bihotza » operazioaren 3. zatia burutzeko SOBAMAT/ECRD enpresa multzoarekin orotara 566 407,10 € ZK kostako duen merkaturia izenpetzea baimentzen du.

## **6 – Arnaga: 2016ko zuhaitzen segurtatze programa.**

Auzapez Jaunak 2016ko zuhaitzen segurtatze programa aurkeztu du 2013an Arnaga eremu osoan burutu zuhaitza guzietan egin estimatze baten ondotik. Bi zati jadanik burutuak izan dira 2014 eta 2015ean. Estatuak laguntzak eskaini ditu (DRAC), %40 bai eta Departamenduak ere, %25.

2016ko programa 16 523 € ZK-koa da.

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari galdegiten dio 2016ko zuhaitzen segurtatze programa onartzea eta Estatuari (DRAC) eta Departamenduari laguntzak eskatzea.

Aho batez onartua.

## **7 – Diru laguntza.**

Irastorza Jaunak, kirolez arduratzen den axuantak Herriko kontseiluari proposatzen dio ohiz kanpoko 566 €-ko diru laguntza Kanboarrak elkarteai onartzea, joan den agorrilaren 9an gertatu

den euskal kirolen aste handia antolatzen laguntzeko. Zehazten du hitzartua izan zela, egun horren prestaketarako, herriko etxeak zituela bere gain hartuko makilarien erakustaldiaren fresak eta apairurako edarien xahutzearen erdia. Kanboarrak-ek 566,50 € kostatu duten fres horiek ordaindu ditu.

Bacardatz Jaunak galdegiten du nork hartu dituen bere gain xapitoko fresak.

Irastozra Jaunak erantzuten du 5 000 € kostatu duen xapitoaren alokatzea herriak zuela zuzenki ordaindu.

Auzapez Jaunak zehazten du hori, herria eta Frantziako pilota federazioaren artean izenpetu hitzarmenean ekarria zela.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **8 – 1. Erabaki aldatzaileak.**

Devèze Jaunak, finantzez arduratzen den axuantak, adierazten du erabaki aldatzaileek aurrekontu nagusia eta saneamenduko aurrekontu gehigarria hunkitzen zituztela. Zehazten du ez dela erabaki aldagarririk hartuko saneamenduko aurrekontu gehigarriari dagokionez, proposatutako zuzenketek baliorik ez dutelako.

Aurrekontuko 1. erabaki aldatzailea aurkezten du, postu adierazgarrienak komentatzen ditu eta oharrarazten gehien bat postutik posturako birsailkapenak direla. Ibilmoldeko sekzioa 44 000 €-tan orekatzen da, eta inbestizamendukoa 1 205 878 €-tan.

Inbestiamendu xahutzeen artean, ondoko puntuan tratatua izan den 1 150 000 €-ko epe laburreko kreditu baten diru itzultzea agertzen da.

Bacardatz Jaunak, epe laburreko maileguak herriari kostatuko diona jakin nahi du, eta azalpenak galdegiten ditu mailegu horren zergatiaz.

Devèze Jaunak erantzuten dio epe laburreko mailegua hiru hilabeteko epemugakoak zirela, baina ez ditu finantza fresen xehetasun zehatzak ezagutzen, baina elementu hauek jakinaraziko zaizkio. Herriak epe laburreko mailegu bat burutu zuen, Gassuan lur zatia saldu nahi zuelako. Gogoeta bat abian da, baina neholako erabakirik ez da hartua izan orain arte.

Bacardatz Jaunak galdegiten du epe laburreko maileguaren kostua erantsiko zaionez txostenari.

Devèze Jaunak erantzuten dio diru mailako eragina ezagutaraziko zaiola.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aurrekontu nagusiko 1. erabaki aldatzailea gehiengoak onartzen du.

Abstenitu dira: Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aiçaguerre Anderea, Michelena Jauna.

## **9 – Mailegua.**

Devèze Jaunak Herriko kontseiluari jakinarazten dio banku edo kreditu erakunde desberdinengana jo duela. Lau erakundek erantzun diote: Caisse d'Epargne, Balmako Crédit Mutuel, Crédit Agricole eta Bordeleko Banque Postalek.

Hornitu proposamenak ondokoak dira:

- Banque Postale: %0,90
- Caisse d'Epargne: %0,97

baina %2,50eko diru itzultze aitzinatu batekin, eta ez da onargarria.

Crédit Agricolek IRarik eta dossier fresik gabeko tasa bat proposatzen du eta Crédit Mutuelek IRarik gabeko %1,20ko tasa bat proposatzen du 800 €-ra heltzen diren dossier fresekin negoziazio baten ondotik.

Herriko kontseiluari proposatzen zaio 1 100 000 €ko mailegu bat burutzea Crédit Mutuel ekin %1,20ko tasa aldakor batean.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Gehiengoak onartzen du.

Abstenitu dira: Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aïçaguerre Anderea, Michelena Jauna.

## **10 – Kanpin-karren eremua: lur zati osagarri baten erostea.**

Auzapez Jaunak oroitarazten du 2015eko uztailaren 21eko deliberoaren biartez, Herriko kontseiluak erabaki duela Moulienia OG-an (2 930 m<sup>2</sup>-ko azalera duen 2. zatia) kokatu zati bat 249 050 € ZK ordainduz Errobi Herri elkargoari erostea erabaki duela, kanpin-kar eremu bat burutzeko bertan. Horretarako proposatua izan da lur zati horren ondoan beste zati bat erostea, 1 410 m<sup>2</sup>-ko azalera duen 4. zatia 119 850 € ZK ordainduz.

Bi zatiek orotara 4 340 m<sup>2</sup>-ko azalera lukete eta 368 900 € kostatuko lukete.

Auzapez jaunak seinalatzen du Eremuko zerbitzuak, Errobiko Herri elkargoak hala eskaturik, lurraren estimatze bat egin zuela metro karratua 90 € ZK-tan ezarriz, baina Herri elkargoak berretsi du 2. zatiko prezio berdinean salduko zuela, orohar 85 € ZK metro karratu.

Zati osagarri honekin, kanpin-karren eremuak 49 aparkaleku eskainiko lituzke.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluari galdegiten dio iritzi bat ematea 1 410 m<sup>2</sup>-ko azalera duen 4. zatia deitu 2. zati hori Errobiko Herri elkargoari erosteari buruz.

Bacardatz jaunak adierazten du lurraren erosketa prezio orokorra 368 000 €-koa dela eta obretarako 395 000 € gehitu behar zaizkiola. Galdegten du inbestizamendu horren amortizazioa, 800 000 €-koa, kalkulatu izan denez.

Auzapez jaunak hitza Senperera joan den zerbitzuetako zuzendari orokorrari ematen dio, baina oharrarazten du operazio hau lurralde kontratuan atxikia dela. Aurkeztu zenbatekoaren %30 heineko laguntza esanguratsu bat eskainia zaio herriari. Bestalde, ohiz kanpoko laguntza bat eskainiko lizaioke herriari.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak adierazten du Senpereko kanpin-karren eremuak 60 leku hartzen dituela. Kanbokoaren edukierarekin konparatzen badugu, herriak 30 000 € eta 40 000 € arteko diru sarrera aurreikus dezake kanpin-kar eremu horretarako. Amortizazioari dagokionez, Herri elkargoak ekarri laguntzaren araberakoa izanen da.

Auzapez jaunak oharrarazten du kanpin-kar eremua kentzen balitz, lurra herriarena geldituko litzatekeela. Bestalde, antolaketa horrek kanpin-karren aparkatzearen arazo iraunkorra konponduko luke.

Bacardatz jaunak seinalatzen du karguak izanen direla 40 000 €-etan.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak zehazten du diru sarrera garbia 30 000 € ingurukoa litzatekeela. Langileen fresak mugatuak dira hori kolektibitateko langile batekin egina daitekeelako.

Bacardatz jaunak galdegiten du eguneko kostua kalkulatu izan denez.

Auzapez jaunak ezetz erantzuten dio. Argitasunak eskatuak izan dira eta aztertuak izanen dira. Auzapez Jaunak gehitzen du Kanbon bezeria desberdina dela hiru astez gelditzen delako eta leku berdinean egon nahi duela.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **11 – Lursailen integrazioa eremu publikoan: inkesta ondoko erabakia.**

Auzapez Jaunak oroitarazten du

- Etchegoyena bideko zati bat euro sinbolikoaren truke erosteko proposamenari buruzko 2015eko urtarrilaren 5eko deliberoa,

- docteur Constant Colbert karrika deitu herriko bideko zati baten zabaltzeko proposamenari buruzko 2015eko ekainaren 1eko deliberoaren ondorioz,

2015eko irailaren 15eko agindu baten bidez izendatua izan den Hernandorena Xavier, komisario-inkestariak 2015eko urriaren 6tik 22ra burutu dituen bi inkesta publiko abian ezarri dituela.

Komisario-inkestariak aldeko iritzia eman die bi egitasmo hauei, neholako salaketarik grabatua izan ez delarik.

Herriko kontseiluari ondokoari buruz iritzia ematera galdegiten zaio:

1°) Etchegoyena bidearen zati baten erosketa hemen erantsi lursail planoari jarraikiz, operazio honi beharrezkoa zaion lurraren erosketa eta honen integrazioa eremu publikoan, erran nahi baita Larroulet Inès eta Myriam Andereen jabetza den 173 m<sup>2</sup>-ko azalerako AR 151 lursaila, euro sinbolikoaren truke,

2°) docteur Constant Colbert karrikaren zabaltzea hemen erantsi lursail planoari jarraikiz, operazio honi beharrezkoa zaion lurraren erosketa eta honen integrazioa eremu publikoan, erran nahi baita Landouzy SCI-ren jabetza den 17 m<sup>2</sup>-ko AW 202 lursaila, euro sinbolikoaren truke,

eta operazio hauek burutzeko beharrezkoak diren desmarta eta formalitateak egiteko eta aktak dagokien forma administratiboan gauzatzeko baimena Auzapez Jaunari emateko.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

## **12 – AGAH eta haurtzaindegiko eraikinen lekualdatzea.**

### ***a) AGAH eta LSHZ-aren eskualdatzea herriari.***

St Jean Medikiak oroitarazten du 2015eko irailaren 21eko deiberoaren bitartez, Herriko kontseiluak erabaki duela LSHZ-eko Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Harrera (AGAH) herriari pasaraztea erabaki duela 2016ko urtarrilaren 1etik goiti.

Batzorde teknikoak iritzia 2015eko azaroaren 20an baizik eman ez zuenez, komeni da berriz deliberatzea eskualdatze honi buruz, batzorde teknikoaren iritzia eskuratu ondoren. Azken honek aldeko iritzia eman du.

Aho batez, Herriko kontseiluak onartzen du LSHZ-eko AGAH 2016ko urtarrilaren 1etik goiti herriari pasaraztea.

### ***b) Haurtzaindegiko eraikinen eskualdatzea Errobi Herri elkargoari.***

Saint Jean Medikiak adierazten du Errobi HE-ko Elkargo kontseiluak, joan den azaroaren 4ko deliberoaren ondorioz, erabaki duela Lehen Haurtzaroa eskumena bere gain hartzea 2016ko urtarrilaren 1etik goiti.

Herriko kontseiluari galdegiten zaio iritzi bat 2015eko abenduaren 31 aitzin ematea, haurtzaindegiko eraikinak Errobi HE-ri uzteko.

Zehaztua da ez dela esleitze aldaketarik eta lurra herriaren jabetza gelditzen dela.

Aho batez onartua.

## **13 – Langileak: enplegu kentze eta sortze.**

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak azaltzen du:

LSHZ-eko Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Harrera (AGAH) 2016ko urtarrilaren 1etik goiti herriari pasaraztearen kariatara, Herriko kontseiluak, 2015eko irailaren 21eko deliberoaren ondorioz, 2. gradoko eta denbora osoko animazio laguntzaile enplegu bat eta astean 20 oren betez denbora ez osoko 2. gradoko laguntzaile tekniko enplegu bat sortu ditu 2016ko urtarrilaren 1etik goiti langileen postu aldaketa burutzeko gisan.

2015eko urriaren 28ko gutun baten bidez, A.G.A.H-ko lokalen garbiketaz arduratzen den langileak dimisioa aurkeztu du. L.S.H.Z-eko zuzendariak langile bat hartu du LKM 2015eko azaroaren 2tik 2015eko abenduaren 18a arte postu hutsa betetzeko. Herriak langile bat erreklutatu behar du 2016ko urtarrilaren 1etik goiti beraz.

Postu hau denbora ez osoz (15oren/astea) proposatua izan zaio lehen mailako eskolaren garbiketaz arduratzen den kolektibitateko langile bati, honek asteko lan denbora 15 orenetik 35 orenera pasaraziko liokeelarik. Langileak onartu duen proposamena.

Komeni da beraz:

- L.S.H.Z-eko lokalen garbiketaz arduratzen zen langileak astean 20 oren betez zuen denbora ez osoko 2. gradoko laguntzaile tekniko postua 2016ko urrrilaren 1etik goiti kentzea,
- Lehen mailako eskolaren garbiketaz arduratzen den langileak astean 15 oren betez zuen denbora ez osoko 2. gradoko laguntzaile tekniko postua 2016ko urtarrilaren 1etik goiti kentzea,
- A.G.A.H-ko lokalen eta lehen mailako eskolako garbiketaz arduratzeko denbora osoko 2. gradoko laguntzaile tekniko postu bat 2016ko urtarrilaren 1etik goiti sortzea.

2015eko azaroaren 20an bildu den batzorde teknikoak bi postu hauen kentzeko aldeko iritzia eman du.

Aho batez onartua.

## **14 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Lurralde kolektibitateen kode orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko herriko kontseiluaren deliberaren ondorioz, ondokoa jakinarazten da

1º) hiriaren erosteko lehentasun eskubideari dagozkion ezezko erabakiak, 2015eko urriaren 27tik azaroaren 20ra:

- Lur eremu: 1
- Etxe: 3
- Apartamendu: 1

2º) hilerrian kontzesioen emate eta berriz hartzei buruzko erabakiak, 2015eko urriaren 27tik azaroaren 20ra:

- Kontzesio erosketak 15 urterako: 0
- Kontzesio erosketak 30 urterako (+ hilobiak): 0
- Kontzesio erosketak 30 urterako (+ Kolunbarioak): 0
- Kontzesio berritzeak 15 urterako: 4
- Kontzesio berritzeak 30 urterako (hilobiak): 1
- Dohaineko lur zatien berriz hartzea: 0

## **15 – Orotariko gaiak.**

Auzapez Jaunak jakinarazten du gutun bat eskuratu duela Malandain Baleta Konpainiarengandik. Oroitarzten du joan den urtean, konpainia honek eta Biarritzeko auzapezak hala galdeginik, kanboarrek baleta bat ikusi ahal izan zutela eta hortik atera 16 000 €-ko etekina herriko etxeari eskainia izan zitzaiola 2014ko uztailaren 4ko uholdeen biktimen artean bana dezan.

Malandain baletak aurtengo proposatzen dute lehentasunezko operazio bat burutzea Kanboko bizilagunentzat heldu den abenduaren 27an, 16:00etan eta abenduaren 28an, 20:00etan, 28 €-tan, 35 €-ren ordez. Informazio hau internet ~~gunan~~ eta taula elektronikoan hedatua izanen da. Proposatzen du izen emateak Herriko etxean biltzea. Joan den urtean konpainia honek ekarri laguntza eskertzeko molde bat da.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zoin ikuskizuna den.

Auzapez jaunak erantzuten du « Cendrillon » dela. Jadanik betea den beste ikuskizuna « La belle et la bête » da.

-----

Bacardatz Jaunak seinalatzen du 2012ko uztailearen 16ko Herriko kontseiluko saioan hitzarmen bat izenpetua izan zela Crédit Agricolarekin partikularrentzako saneamendu sareari lotzeko obrak 0 tasan finantzatzeko. Galdegiten du hitzarmen hau beti indarrean denez.

Devèze Jaunak erantzuten dio ez dakiela. Hitzarmenaren baliozkotasun epemuga begiratu behar da.

Bacardatz Jaunak iradokitzen du desmarta berdina egitea Camp de César bideko bizitzaile eta beste batzuentzat ere.

Devèze Jaunak erraiten du arrunt ados dela.

-----

Bacardatz Jaunak oharrarazten du herriko etxera dokumentuak kontsultatzera datorrenean, galdegin duela ea dokumentuen fotokopiak ukaiten ahal zituenez, bakarrik kontsultatzen ahal zituela erantzun izan zitzaiola. Posible ote daiteke dokumentu hauek forma desmaterializatuan ukaitea?

Auzapez jaunak ezetz erantzuten dio, dokumentu anitz azterketa fasean daudelako eta ezin dira publiko bihurtu. « Herriko kontseiluko kide ororen gisara dokumentuak kontsultatzeko eskubidea duzue hitzordua hartu ondoren, langileen lana ez tratatzeko. Zerbitzuetako zuzendari orokorrak nahiko luke bi edo hiru egun lehenago jakinean egon hitzordua finkatzeko gisan ».

Bacardatz Jaunak oharrarazten du saioaren hastapenean, Auzpez Jaunak Hiriart-Urruty Andereari erran ziola Suprefeta Jaunaren gutunaren kopia eskura dezakeela. Ez du ulertzen zoin dokumentu mota fotokopia daitezkeen ala ez.

Auzapez Jaunak erantzuten dio berak badakiela.

-----

Hiriart-Urruty Andereak ondoko oharra egiten du: « Duela hamabost bat egun mail bat eskuratu dugu Herriko kontseiluko kide batengandik, baina politikoki biziki orientatua zena eta eskatzen diogu ez diezagun gehiago horrelako mailik igor, salbu herriko biziari badagokio, baina ez « eskuinera arrunt » ideia horiekin. Berak bere burua ezagutuko du ».

-----

Aiçaguerre Andereak seinalatzen du, taula elektronikoari buruz, aste honetan oraindik urriaren 23 eta 24eko bric à brac bati buruzko inormazioak agertzen zirela. Gaurko Herriko kontseiluko bilkura aldiz ez zen agertzen. Eta hori damugarri iruditzen zaio.

Lassus Jaunak erantzuten dio taulei dagokienez, gaur egun entsegu fase batean direla seinale ahal bezain ona ikusteko gisan. Hitzarmen bat pasatua izan zen hastapenean Orange operadorearekin, eta Orangeko segurtasun mailako arregurak kontutan harturik, hornitzailea aldatu da eta SFR-ek du lekukoa hartu. Badu hilabete bat orain, Nicolas Le Barsek konexio zailtasun

guziak kontutan hartzen dituela. Seinalatzen du taula baterako hirugarren operadore bat hautatua izan dela entsegu gisa. Egonkortze fase bat izanen da. Iduri luke gauzak hobetzen direla.

-----

Bacardatz Jaunak oharrarazten du datorren herriko aldizkarirako ba duela aste bat oposizioak haren orria eman duela, errana izan ez dadin oposizioarengatik dela aldizkaria berantarekin argitaratzen. Galdegiten du posible denez argazki bat gehitzea.

Lassus Jaunak erantzuten dio ongi eskuratu duela eta ikusiko duela testu guzia ongi sartzen denez eskainia zaion orrian. Argazkiari dagokionez, zalantzak baditu horren sarrarazteari buruz.

Auzapez Jaunak saioa 22:10etan bukatutzat ematen du.